



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko abenduaren 11

144. ZK.

---

### **A U R K I B I D E A**

A SAILA:

**Foru lege proiektuak:**

—Foru Lege proiektua, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzkoa. Aurkeztutako zuzenketak (2. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Foru Lege proiektua, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzkoa.**

### **AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agindu dut. Proiektu hori 2013ko azaroaren 5eko 126. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2013ko abenduaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **1. ZUZENKETA**

#### **BILDU-NAFARROA**

##### **PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Lehenengo artikuluko Bi atala kentzeko zuzenketa.

Zioak. Gure ustez, beken tratamenduari buruzko azterketa fiskal sakonagoa egin behar da, alderdi guztietan, eta Nafarroako Gobernuaren proposamenak bereizkeria dakar finantzaketa-modu horren tratamendu fiskalean.

### **2. ZUZENKETA**

#### **IZQUIERDA-EZKERRA**

##### **PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Lehenengo artikuluko Bi atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Gure ustez, salbuespen hori ez dago justifikatuta.

### **3. ZUZENKETA**

#### **IZQUIERDA-EZKERRA**

##### **PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko eledun José Miguel Nuin Moreno jaunak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako zuzenketa aurkeztu dio Zenbait Zerga Aldatu eta Beste Tributu-neurri batzuk Hartzari buruzko Foru Lege proiektuari.

Lehenengo artikuluko Hiru ataleko bigarren lerrokada aldatzeko zuzenketa.

“400.000 euro” dioen tokian esan behar du “200.000 euro”.

Zioak: gure ustez, 200.000 eurotik gorako etekin ez dute aurreikusitako kenkariaren onurarik eduki behar.

### **4. ZUZENKETA**

#### **ARALAR-NAFARROA BAI**

##### **PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Lehenengo artikuluko Hiru atala aldatzeko zuzenketa. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategineko 17.2. artikuluko a) letra aldatzen da.

Bigarren lerrokada:

“Dena dela, murrizketa hori ez da aplikatuko lan harreman arrunt edo berezia edo merkataritza harremana, 14.2.c) artikuluan aipatua, edo biak iraungitzen direnean, etekin horiek 300.000 eurokoak edo handiagoak direnean”.

Zioak: Salbuespena behar bezain altua da.

**5. ZUZENKETA****ARALAR-NAFARROA BAI  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Lehenengo artikuluko lehenengo artikuluko Lau atala kentzeko zuzenketa. Atal horrek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategineko 25.1. artikuluko a) letra aldatzen du.

Zioak: Konponketa- eta kontserbazio-gastuak ez dira kontuan hartzekoak higiezinaren kapitalaren etekin garbia zehazteko, are gehiago alokairuko etxebizitzaren kasuan etekin garbi hori ehuneko 40 jaitsi denean, foru lege proiektuaren erredakzio berrian jasotakoaren arabera.

**6. ZUZENKETA****BILDU-NAFARROA  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Lehenengo artikuluko Bost atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Etxebizitzaren arloko proposamenak ez dira koherenteak, behar diren neurrien sakoneko azterketa egiten ez bada, baita ikuspuntu fiskaletik ere, etxebizitzak alokatzeko pizgarriak emateari buruz. Proposamen horiek, gainera, eragin negatiboa izaten ari dira errentariengan.

**7. ZUZENKETA****MANU AYERDI OLAIZOLA  
FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA**

Foru lege proiektuko lehenengo artikuluko Bederatzi atalaren amaieran beste lerrokada bat gehitzeko zuzenketa. Honako testua izanen luke:

“Halaber, kenkari hori aplikatu ahalko da ohiko etxebizitzaren esparruan etxeko lanak egiteko egiten diren kontratuen kasuan”.

**8. ZUZENKETA****SOCIALISTAS DE NAVARRA  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Lehenengo artikuluari beste atal bat –Hamar bis– gehitzeko zuzenketa.

“Hamar bis. 62. artikuluari 12. idatz-zati bat gehitzea. 2014ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

“12. Biomasa-instalazio termikoetan inbertitzeagatik kenkariak.

Biomasa erregai gisa erabiltzen duten eraikinen instalazio termikoetan egindako inbertsioek, instalazio horiek enpresa- nahiz lanbide-jarduerei atxikita ez daudenean, eskubide emanen dute inbertsio horien ehuneko 15eko kenkaria aplikatzeko.

Eragin horietarako, beharrezkoa izanen da energiaren arloko organo eskudunak inbertsioen kopuruari buruzko egiaztapen-txosten bat eman dezala, non, halaber, egiaztatuko baita instalazioak zerbitzuan jarri direla Eraikinetako Instalazio Termikoei buruzko Erregelamenduan ezarritakoaren arabera.

Kenkariaren oinarria txosten horretan egiaztatutako inbertsioen zenbatekoaren arabera finkatuko da, eta 64.1 artikuluan aipatzen den mugaren eraginietarako hartuko da kontuan.

Aipatutako instalazioak enpresa- eta lanbide-jarduerei atxikita baldin badaude, kenkaria aplikatuko da sozietateen gaineko zergari buruzko araudian ezarritakoaren arabera eta artikuluko honetako 3. atalean ezarritakoarekin bat”.

Zioak: Europako Batzordeak agiri askotan aitortu du energia berriztagarrien erabilera sustatu behar dela. Hartara, 2005eko abenduan, Batzordeak biomasari buruzko ekintza plana onetsi zuen, zeina diseinatu baitzen basoetatik, nekazaritzaetik eta hondakinetatik heldu den energiaren erabilera areagotzeko. Ekintza plan horrek bilatzen du Europak inportatutako energiarekiko duen mendetasuna gutxitzea, negutegi-efektuko gasen emisioa ahal den guztian gutxitzea, landa inguruetako enplegua babestea eta Europar Batasunak teknologiaren eta lehiakortasunaren arloetan duen lidergoa sendotzea.

Biomasaren sustapena bultzatu beharra dago, halaber, Nafarroako Oihan Ondarea Babestu eta Garatzeari buruzko abenduaren 31ko 13/1990 Foru Legeko 63.bis artikuluan ezarritakoarekin bat; izan ere, honakoa xedatzen da bertan: “bultzatu eta saritu egingen da basoetako biomasa energia iturri gisa erabiltzea eraikin publikoetan, etxebizitzetan eta urbanizazioetan”.

Nafarroako Parlamentuko Enpleguaren Mahaia, enplegua sortzeko neurrien artean, honakoa jaso zuen: “Jarduketa berriak biomasaren sektorean: funts galdurako inbertsioaren % 10eko diru-laguntza ezartzea, bai eta ingurumen-inbertsioekin parekagarriak diren zerga kenkariak ere (% 15)”.

Era askotakoak dira basoetako biomasa erabiltzeak dauzkan alde onak:

a) Energiaren arlokoak, energia-hornidura dibertsifikatzeari dagokionez. Biomasa lagungarri gerta daiteke tokiko energia-iturrien hornidura areagotzeko.

b) Ingurumenekoak. Biomusak erregai konbentzionalak ordeztu, eta negutegi-efektuko gasen emisioa gutxitzen du. Halaber, mendietako zuhaitzen kudeaketa bultzatzen du, basoetan suteak gertatzeko arriskua asko gutxitzeaz gainera.

c) Sozioekonomikoak eta lanpostuak sortzarekin lotutakoak, kapitaleko lan adierazle altuak dituzten sektoreetan –esate baterako, basogintzaren sektorean– “enplegu berdeak” sortzeko helburuarekin.

Planifikatuta dagoen Nafarroako baso-azalaren tamaina handia eta zur ziurtatuaren ehuneko handia direla eta, lehiakortasuneko abantaila handian jartzen ditu Nafarroako mendietatik heldu diren baliabideak, eta aprobetxamendu energetikoa bultzatzeko bidea ematen du.

Hori guztia dela eta, beharrezkoa da egokitzat eta komenigarritzat jo dadila biomasa erregai gisa erabiltzea, tratamendu onuragarri baten bitartez.

PFEZari dagokionez, proposatzen da kuotan ehuneko 15eko kenkaria aplikatzea biomasa erregai gisa erabiltzen duten eraikinetako instalazio termikoengatik.

Aipatutako instalazioak enpresa- eta lanbide-jardueri atxikita baldin badaude, kenkaria aplikatuko da sozietateen gaineko zergari buruzko araudian ezarritakoaren arabera.

Kenkari hori aplikatzearen eraginetarako, beharrezkoa izanen da energiaren arloko organo eskudunak inbertsioen kopuruari buruzko egiaztapen txosten bat eman dezala, non, halaber, egiaztatuko baita instalazioak zerbitzuan jarri direla Eraikinetako Instalazio Termikoei buruzko Erregelamenduan ezarritakoaren arabera.

Kenkariaren oinarria txosten horretan egiaztatutako inbertsioen zenbatekoak determinatuko du.

Datu ekonomikoei dagokienez, kalkulatu da urteko 1.350.000 euroko inbertsioa egon daitekeela, urteko 202.500 euroko kenkariak dakarren kostu fiskalarekin.

## 9. ZUZENKETA

### SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Lehenengo artikuluari beste atal bat –Hamar ter– gehitzeko zuzenketa.

«Hamar ter. 64.1. artikulua. 2014ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

“1. 62. artikuluko 4. eta 12. idatz-zatietan aipatzen diren kenkariaren oinarrien baturak ez du gaindituko subjektu pasiboaren likidazio-oinarriaren ehuneko 30a”».

Zioak: Zuzenketak izaera tekniko hutsa dauka, zeren eta 64. artikuluko 1. idatz-zati hau 62. artikuluko 12. idatz-zati berrian ezarritakoarekin koordinatu nahi baitu.

62. artikuluko 12. idatz-zati honek PFEZean beste kenkari bat ezarri du, erregai gisa biomasa erabiltzen duten instalazio termikoetan inbertitzeagatik. Kenkari horrek baterako muga bat edukiko du 62.4 artikuluan ezarritako kenkariarekin; hau da, bi kenkariaren baturak ezin izanen du gainditu subjektu pasiboaren likidazio oinarriaren ehuneko 30a.

Baterako muga hori aplikatzeko orduan zalantzarik egon ez dadin, komenigarritzat jotzen da 64.1 artikulua horren arabera aldatzea.

## 10. ZUZENKETA

### UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Lehenengo artikulua Hamabost atala aldatzeko zuzenketa.

Hamabost. Berrogeita hirugarren xedapen gehigarria. 2012ko martxoaren 11tik aurrera gertatzen diren ondare gehikuntzen ondorioetarako.

“Berrogeita hirugarren xedapen gehigarria. Prozedura judizialean edo estrajudizialean ohiko etxebizitza eskualdatzearen ondoriozko ondare gehikuntzaren salbuespena.

Finantza entitate batek abiatutako prozedura judizial batean hipoteka-zordunak ohiko etxebizitza eskualdatzearen ondorioz izaten den ondare gehikuntza salbuespena egonen da zergatik; betiere, etxebizitza hori subjektu pasiboak bere titulartasunean duen bakarria bada.

Aurreko lerrokadan aurreikusitakoa aplikatzekoa izanen zaie, halaber, Hipoteka Legearen 129. artikuluan aurreikusitako notario bidezko ohiko etxebizitzaren salmenta estrajudizialei, bai

eta etxebizitza hori zorraren ordainean ematen den kasuei –hala adostu duelako hipoteka-zordunak finantza-entitate batekin hipoteka-exekuzioaren ordezkotzat neurri gisa–; betiere, etxebizitza hori subjektu pasiboak bere titulartasunean duen bakarra bada.

Salbuespen hori aplikatzeko mugak ezarri ahalko dira erregelamendu bidez”.

Zioak: Hipoteka-zordunak babesteko neurriak indartu nahi ditu zuzenketak, neurriok nahitaezkoak baitira uneotan, jende hori zaurgarritasun-egoera larrian dago eta. Izan ere, gaur egungo krisi sakon honetan, Nafarroako gizarteak ikusi du nola langabeziak kalte nabarmena eragin duen familia askotan, halako moduz non zenbait laguntza eskuratzeko eskubidea ematen duten bazterketa-atalaseak motz gelditu baitira.

Horregatik, PFEZaren araua aldatuta, aurrerapauso bat eman nahi da eta hipoteka-zordun guztiak babestu, edozein dela ere beren bazterketa-atalasea, betiere bi baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Eskualdatutako higiezina ohiko etxebizitza izatea.

b) Etxebizitza hori izatea subjektu pasiboa titular den bakarra.

Baldintza bi horiek beteta, gerta daitekeen ondare-handitzea salbuetsita egonen da. Eta hori aldi batera utzita etxebizitzaren eskualdatzea finantza-entitate batek abian jarritako prozedura judicial baten ondorio den, Hipoteka Legearen 129. artikuluan aurreikusitako notario bidezko salmenta estrajudicial baten ondorio, edota etxebizitza hori zorraren ordainean ematen delako hala adostu duelako hipoteka-zordunak finantza-entitate batekin hipoteka-exekuzioaren ordezkotzat neurri gisa.

Etxebizitza zorraren ordainean emateari dagokionez, nabarmendu beharra dago gero eta ohikoagoa dela hipoteka-zordunak ados jartzea finantza-entitateekin beren etxebizitza zorraren ordainean eman eta, hala, zorra erabat kitatzeko, efektu gaiztorik gabe, hau da, ohiko etxebizitza galtzeaz gain ez dadin zorraren zati bat kitatu gabe gelditu.

Proposatzen den aldaketak 2012ko martxoaren 11tik aurrerako ondare-gehikuntzetan izanen ditu ondorioak; alegia, indargabe uzten den arau horrek ondorioak izan zituen egun beretik aurrera.

## 11. ZUZENKETA

### UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Lehenengo artikulua Hamasei atala aldatzeko zuzenketa.

Hamasei. Berrogeita bosgarren xedapen gehigarria gehitzea. 2013ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

“Berrogeita bosgarren xedapen gehigarria. “Zerga-salbuespenen eta -kenkariaren itzulketak”

Zerga-salbuespenak eta -kenkariak aplikatu dituzten subjektu pasiboak ez zaie horiek itzultzerik eskatuko etxebizitza ohiko bizilekua badute eta ez badira beste etxebizitza baten titular; betiere, etxebizitza horren eskualdatzea gertatzen bada finantza-entitate batek abian jarritako prozedura judicial batean barruan, edo Hipoteka Legearen 129. artikuluan aurreikusitako notario bidezko salmenta estrajudicial baten ondorioz, edota etxebizitza hori zorraren ordainean ematen denean hala adostu duelako hipoteka-zordunak finantza-entitate batekin, hipoteka-exekuzioaren ordezkotzat neurri gisa”.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bateginaren berrogeita bosgarren xedapen gehigarriak ezartzen du, foru lege proiektuko testuaren arabera, etxebizitza babestuak erosteko laguntzak jasotzen dituztenek ez dituztela itzuli beharko aplikatu zaizkien zerga-salbuespenak edo -kenkariak, baldin eta zerga-onura horiek galdu badituzte etxebizitza eskualdatu delako –etxebizitza ohikoa eta subjektu pasiboak titular gisa duen bakarra– finantza-entitate batek eragindako prozedura judicial batean, edo Hipoteka Legearen 129. artikuluan aurreikusitako notario bidezko salmenta estrajudicial baten ondorioz.

Zuzenketaren bidez nahi dena da hipoteka-zordun horientzako babesa zabal dadila.

Horrela, aplikatzekoa izanen da, batetik, etxebizitza ematen denean zorraren ordainean hipoteka-zordunak hala adostu duelako finantza-entitate batekin hipoteka-exekuzioaren ordezkotzat neurri gisa.

Babesa, bestetik, etxebizitza-mota guztietara zabalduko da, eta ez da aplikatuko soilik etxebizitza babestuen eskualdaketetan.

Azken batean, zuzenketarekin proposatzen dena da hipoteka-zordunek, baldin eta finantza-entitate batekin akordio estrajudicial bat lortu badute ohiko etxebizitza emateko zorraren ordainean.

netan, ez daitezela behartuta egon aplikatu zaizkien zerga-salbuespen edo -kenkariak itzultzeraz. Eta, betiere, kontuan izan gabe zer etxebizitzamota den, babestua ala ez-babestua

## 12. ZUZENKETA

### UPN, SN, B-N, A-NB, PPN eta I-E PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

Lehenengo artikuluari beste atal bat —Hemezortzi—gehitzeko zuzenketa.

“Hemezortzi. Berrogeita zazpigarren xedapen gehigarria gehitzea.

2014ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

“Berrogeita zazpigarren xedapen gehigarria. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zenbatespen objektiboko araubidetik eta balio erantsiaren gaineko zergaren araubide berezi sinplifikatutik kanpo utziko duten zenbatekoak.

Urteko diru-sarreraren zenbatekoek gainditu egiten badituzte ondoko kopuruak, hurrengo urtean ezin izanen dira aplikatu pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zenbatespen objektiboko araubidea eta balio erantsiaren gaineko zergaren araubide berezi sinplifikatua.

a) 300.000 euro, ondotik aipatzen diren jardueretan:

– Abeltzaintza independentea.

– Ganadua hazteko, zaintzeko eta gizentzeko zerbitzuak.

– Balio erantsiaren gaineko zergaren nekazaritzako, abeltzaintzako eta arrantzako araubide berezitik salbuetsita dauden nekazari eta abeltzainek eginiko bestelako lan, zerbitzu eta jarduera osagarri batzuk.

– Balio erantsiaren gaineko zergaren nekazaritzako, abeltzaintzako eta arrantzako araubide berezitik salbuetsita dauden oihan-jardueren titularrrek eginiko bestelako lan, zerbitzu eta jarduera osagarri batzuk.

– Apartzeria-araubidean gauzatzen diren nekazaritza-jardueretan, lagatzaileari dagozkion aprobetxamenduak.

– Apartzeria-araubidean gauzatzen diren oihan-jardueretan, lagatzaileari dagozkion aprobetxamenduak.

– Produktu natural, begetal edo animalia-produktuen transformazio-, elaborazio- edo manufaktura-prozesuak, jarduera ekonomikoen gaineko zergaren tarifetan jarduera industrialei dagokien

epigrafeetako batean alta emanda egotea exijitzen dutenak.

– Nekazaritza- edo abeltzaintza-jarduerak, balio erantsiaren gaineko zergaren nekazaritzako, abeltzaintzako eta arrantzako araubide berezian egon daitezkeenak.

– Oihan-jarduerak, balio erantsiaren gaineko zergaren nekazaritzako, abeltzaintzako eta arrantzako araubide berezian egon daitezkeenak.

b) 150.000 euro, gainerako jardueretan”

Zioak: Nafarroako Zerga Ogasunak aztergai izan ditu pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zenbatespen objektiboaren araubidea erabiltzen zuten jarduerak eta balio erantsiaren gaineko zergaren araubide berezi sinplifikatua erabiltzen zutenak, eta, bereziki, adierazgarrienak direnak errendimenduaren zenbatekoagatik edo deklaratzailer kopuruagatik. Azterlan horretatik ateratzen den ondorioa da ez dagoela argudio garbirik araubide horien aplikazio eremua aldatzeko uneotan.

Hala ere, aplikazio eremu hori behar bezala zehazteko, egoki jotzen da legean espresuki adierazita egon dadila zer zenbatekok ekarriko duten, diru-sarreraren arabera, ezin sartu ahal izatea pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zenbatespen objektiboko araubidean eta balio erantsiaren gaineko zergaren araubide berezi sinplifikatua. Horretarako, diru-sarreraren zenbatekoek buruz erregelamendu-xedapenetan dauden arauak legera eramanen dira.

## 13. ZUZENKETA

### BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren artikuluko Bat atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Sozietateetako onuradunen gaineko zergak proposatzen dena baino birplanteamendu sakonagoa eskatzen du, talde honek aurkeztutako Sozietateen gaineko Zerga Aldatzeko Foru Lege proposamenean ageri den bezala.

## 14. ZUZENKETA

### UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren artikuluari beste atal —Bat bis— gehitzeko zuzenketa.

Bat bis. 24.1. artikuluari h) letra gehitzea.

“h) Eroskeria-jokabideak.”

Zioak: Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundeko (ELGA) herrialdeek, 1997an onetsi zuten Nazioarteko Merkataritza-Transakzioetan Atzerritar Agente Publikoen Ustelkeriari aurre egiteko Hitzarmena (“Eroskeriaren kontrako Hitzarmena” ere deritzona). Hitzarmen hori, eta nazioarteko merkataritza-transakzioetan atzerritar funtzionario publikoen ustelkeriaren aurkako borroka indartze aldera 2009an berrikusitako gomendio bat, bai eta horien eranskinak ere (jardun onerako gidak), ELGAK dituen tresnak dira, kide diren herrialdeak behartzen dituztenak atzerritar agente publikoen ustelkeria borrokatzera. Horrez gain, ustelkeria-delituari loturiko delitutzat tipifikatzen da diru-zuritzea.

Orain arte, hitzarmen hori 39 herrialdek izenpetu dute: ELGAKo 34 kideek gehi Argentinak, Brasilek, Bulgariak, Errusiak eta Hegoafrikak.

Espainiak 1997ko abenduaren 17an sinatu zuen hitzarmen hori, eta Gorte Nagusiek baimena eman ostean,

Konstituzioko 94.1 artikulua ezarri bezala, 2000ko urtarrilaren 3an berretsi zuen (2000ko otsailaren 22ko EAO).

Neurri fiskalei buruz Europar Batasuneko Kontseiluak 2009an emanda zuen gomendioak premiatu egiten ditu, bai estatu kideak bai ELGAKo hitzarmeneko gainerako alderdi guztiak, esanbidez eta eraginkorki uka dezaten, zerga-ondorio guztietarako, atzerritar funtzionario publikoen ustelkeriagatiko ordainketen kengarritasun fiskala.

Dokumentu horren arabera, ukazio hori legez ezarri beharko litzateke, edo legearen efektu berak sortzen dituen beste edozein bitarteko lotesle baten bidez.

Nazioarteko merkataritza-transakzioetako eroskeriari buruzko ELGAKo lan-taldeak kezka adierazi du, eroskeriaren ondoriozko gastuak Sozietateen gaineko Zergari buruzko Estatuko Legeko 14. artikulua bitartez kengarri gisa erabiltzearen inguruan, ez baitzuen espresuki aipatzen eroskeriaren kengarritasunaren debekua; horrenbestez, Espainiari gomendatu dio berriazko xedapen bat ezar dezan ildo horretan.

Horren ondorioz, Tributuen Zuzendaritza Nagusiak, 2007ko martxoaren 5ean, txosten bat argitaratu zuen, funtzionario atzerritarrei ustez ilegalki ordaindutako kopuruek sozietateen gaineko zergari dagokionez duten kengarritasun fiskaleko izaerari buruz, eta bertan honakoa ondorioztatu zuen: delituzkoak diren nahiz errotik debekaturiko jokabideak diren gastuak, oro har, eta, zehazki, atzerritar

funtzionario publikoen eroskeriarako ordainketak, ez dira gastu kengarri izanen sozietateen gaineko zergan, ez daudelako beharrezko eta zilegizko korrelazioan diru-sarrerekin, eta eskuzabaltasun soiltzat jotzen dira, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Legearen testu bateginaren 14. artikuluari jarraikiz”

Lehen aipatutako lan-taldeak iritzi zionez, forulraldeetan faltan zegoen berriazko debeku bat, bai eta adierazpen espres bat ere, eroskeria-egintzetarako ordainketak sozietateen gaineko zergari dagokionez gastu kengarri izanen ez direla dioena.

Hori guztia dela-eta, ELGAKo lan-taldearen gomendioari jarraikiz, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 24. artikuluan berriaz xedatzen da eroskeria-egintzek ez dutela gastu fiskalki kengarri izaerarik.

Alabaina, ohartarazi beharra dago eroskeriaren kengarritasun-ezaren araupetze berriazko horrek ez duela aldaketarik egiten zergapetze-moduan, zalantzarik gabe ondorioztatzen da-eta, hala gaur egun indarrean dagoen arauditik nola jurisprudenziatik, eroskeria-egintzetarako ordainketak ez direla kengarri.

## 15. ZUZENKETA

### BILDU-NAFARROA

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren artikuluko Bi atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Sozietateetako onuradunen gaineko zergak proposatzen dena baino birplanteamendu sakonagoa eskatzen du, talde honek aurkeztutako Sozietateen gaineko Zerga Aldatzeko Foru Lege proposamenean ageri den bezala.

## 16. ZUZENKETA

### BILDU-NAFARROA

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren artikuluko Hiru atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Sozietateetako onuradunen gaineko zergak proposatzen dena baino birplanteamendu sakonagoa eskatzen du, talde honek aurkeztutako Sozietateen gaineko Zerga Aldatzeko Foru Lege proposamenean ageri den bezala.

**17. ZUZENKETA****ARALAR-NAFARROA BAI  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Bigarren artikuluko Hiru atala aldatzeko zuzenketa. Atal horrek Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legeko 37. artikulua aldatzen du.

“1. Patenteak, marrazkiak edo modeloak, planoak, formulak edo isilpeko prozedurak erabili edo ustiatzeko eskubidea eta industria, merkataritza edo zientzia arloko esperientziei buruzko informazioen gaineko eskubideak lagatzen sortutako errentak zerga-oinarrian sartuko dira baina beren zenbatekoaren ehuneko 50ean, baldintza hauek betetzen direnean:

a) Entitate lagatzailea lagatzen diren aktiboen sortzailea izatea”

Hiru atalaren gainerakoa bere horretan gelditzen da.

Zioak: Patenteak sortzeko jarduerak lehendik ere onura fiskal batzuk badauzka. Onura hori zabaltzea ez dago justifikatuta, ez eta hura lortzeko baldintzak arintzea ere, jarduera horren ondorioz diru-sarrerak lortzen ari direnean. Are nabarmenagoa da hori kontuan hartzen bada ez dagoela frogaturik pizgarri horiek eraginkorrak izatea.

**18. ZUZENKETA****BILDU-NAFARROA  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Bigarren artikuluko Lau atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Sozietateetako onuradunen gaineko zergak proposatzen dena baino birplanteamendu sakonagoa eskatzen du, talde honek aurkeztutako Sozietateen gaineko Zerga Aldatzeko Foru Lege proposamenean ageri den bezala.

**19. ZUZENKETA****BILDU-NAFARROA  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Bigarren artikuluko Bost atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Sozietateetako onuradunen gaineko zergak proposatzen dena baino birplanteamendu sakonagoa eskatzen du, talde honek aurkeztutako Sozietateen gaineko Zerga Aldatzeko Foru Lege proposamenean ageri den bezala.

**20. ZUZENKETA****SOCIALISTAS DE NAVARRA  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

2. artikuluari beste atal bat, Bost bis, gehitzeko zuzenketa.

Bost bis. 69. artikuluari 3. idatz-zatia gehitzea.

“3. Kuota likidoaren 100eko 15eko kenkaria aplikatzeko eskubidea sortuko dute entitatearen ustiatze ekonomikoaren garapenari atxikita dauden eta biomasa erabiltzen duten instalazio termikoetan eginiko inbertsioak.

Eragin horietarako, beharrezkoa izanen da energiaren arloko organo eskudunak inbertsioen kopuruari buruzko egiaztapen-txosten bat eman dezala, non, halaber, egiaztatuko baita instalazioak zerbitzuan jarri direla kasuko araudi sektorialean ezarritakoaren arabera.

Kenkari hori aplikatzea bateraezina izanen da aurreko 1. idatz-zatiko kenkariarekin.

Zioak: Europako Batzordeak agiri askotan aitortu du energia berriztagarrien erabilera sustatu behar dela. Hartara, 2005eko abenduan, Batzordeak biomasari buruzko ekintza plana onetsi zuen, zeina diseinatu baitzen basoetatik, nekazaritza eta hondakinetatik heldu den energiaren erabilera areagotzeko. Ekintza plan horrek bilatzen du Europak inportatutako energiarekiko duen mendetasuna gutxitzea, negutegi-efektuko gasen emisioa ahal den guztian gutxitzea, landa ingurunetako enplegua babestea eta Europar Batasunak teknologiaren eta lehiakortasunaren arloetan duen lidergoa sendotzea.

Biomasaren sustapena bultzatu beharra dago, halaber, Nafarroako Oihan Ondarea Babestu eta Garatzeari buruzko abenduaren 31ko 13/1990 Foru Legeko 63.bis artikuluan ezarritakoarekin bat; izan ere, honakoa xedatzen da bertan: “bultzatu eta saritu egingen da basoetako biomasa energia iturri gisa erabiltzea eraikin publikoetan, etxebizitzetan eta urbanizazioetan”.

Nafarroako Parlamentuko Enpleguaren Mahaiak, enplegua sortzeko neurrien artean, honakoa jaso zuen: “Jarduketa berriak biomasaren sektorean: funts galdurako inbertsioaren % 10eko diru-laguntza ezartzea, bai eta ingurumen-inbertsioekin parekagarriak diren zerga kenkariak ere (% 15)”.

Era askotakoak dira basoetako biomasa erabiltzeak dauzkan alde onak:

a) Energiaren arlokoak, energia-hornidura dibertsifikatzeari dagokionez. Biomasa lagungarri



gerta daiteke tokiko energia-iturrien hornidura areagotzeko.

b) Ingurumenekoak. Biomusak erregai konbentzionalak ordeztu, eta negutegi-efektuko gasen emisioa gutxitzen du. Halaber, mendietako zuhaitzen kudeaketa bultzatzen du, basoetan suteak gertatzeko arriskua asko gutxitzeaz gainera.

c) Sozioekonomikoak eta lanpostuak sortzearekin lotutakoak, kapitaleko lan adierazle altuak dituzten sektoreetan –esate baterako, basogintzaren sektorean– “enplegu berdeak” sortzeko helburuarekin.

Planifikatuta dagoen Nafarroako baso-azalaren tamaina handia eta zur ziurtatuaren ehuneko handia direla eta, lehiakortasuneko abantaila handian jartzen ditu Nafarroako mendietatik heldu diren baliabideak, eta aprobetxamendu energetikoa bultzatzeko bidea ematen du.

Hori guztia dela eta, beharrezkoa da egokitzat eta komenigarritzat jo dadila biomasa erregai gisa erabiltzea, tratamendu onuragarri baten bitartez.

Sozietateen gaineko zergari dagokionez, proposatzen da kuotan kenkari bat sortzea, biomasa erregai gisa erabiltzen duten eraikinetako instalazio termikoetan egindako inbertsioaren ehuneko 15arena, instalazio horiek entitatearen ustiatze ekonomikoaren garapenari atxikita daudenean. Kenkari horren kokapena 69. artikuluan aurreikusita dago; hau da, ingurumenerako kontserbazio-eta hobekunza-jarduerengatiko kenkariaren esparruan:

Kenkari hori aplikatzeko, beharrezkoa izanen da energiaren arloko organo eskudunak inbertsioen kopuruari buruzko egiaztapen-txosten bat eman dezala, non, halaber, egiaztatuko baita instalazioak zerbitzuan jarri direla kasuko araudi sektorialean ezarritakoaren arabera.

Kenkari horren aplikazioa bateraezina izanen da ingurumena kontserbatzeko eta hobetzeko kenkariarekin, hain zuzen 69. artikuluko 1. zenbakian jasotakoekin.

Datu ekonomikoei dagokienez, ez da erraza enpresek egin lezaketen inbertsioaren munta kalkulatzeko. 1.000.000 euroko inbertsioa egon daitekeela, urteko 150.000 euroko kenkariak dakarren kostu fiskalarekin.

## 21. ZUZENKETA

### BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren artikuluko Zazpi ataletik Hamabost atalera bitartekoak kentzeko zuzenketa.

Zioak: Sozietateetako onuradunen gaineko zergak proposatzen dena baino birplanteamendu sakonagoa eskatzen du, talde honek aurkeztutako Sozietateen gaineko Zerga Aldatzeko Foru Lege proposamenean ageri den bezala.

## 22. ZUZENKETA

### UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren artikuluko Hamar atala aldatzeko zuzenketa.

Hamar. 109. artikulua quinquies.1.

“1. Etxebizitzen errentamendutik sortutako errentei dagokien kuota osoaren ehuneko 85eko hoberia izanen dute aurreko artikuluan ezarritako beharkizunak betez gero.

Hoberia ehuneko 90ekoa izanen da kasuotan:

a) Etxebizitza babestuen errentamendutik heldutako errentak direnean.

b) Etxebizitzak errentamenduan desgaitasunak dituztenei ematearen ondoriozko errentak direnean eta etxebizitza horietan egokitzapeneko obrak eta instalazioak egiten direnean, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru Legearen Testu Bategineko 62.1.f) artikulua arabera.

Obrak eta instalazioak administrazio eskudunak ziurtatu beharko ditu, aipatu 62.1.f) artikuluko a) azpiletran ezarritako moduan.

Ondorio horietarako, errentariak bere desgaitasuna frogatu beharko du Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko araudian aurreikusitako moduan.”

Zioak: Babestutako etxebizitzen errentamendutik heldutako errententzako hoberia handitu egin da: ehuneko 85etik 90era pasa da. Era horretan, babestutako etxebizitzen errentamenduen aldeko diskriminazio positiboa ezartzen da. Eta hori, bi arrazoiengatik: Lehenik, errentamendurako izanen diren etxebizitza babestuen sustapena bultzatu nahi delako, etxebizitza babestuen alokairurako sistema publikoa indartzeko helburuz. Eta bigarrenik, Nafarroan gaur egun etxebizitzen errentamenduan aritzen diren entitateak babestutako etxebizitzekin aritzen direlako.

Azken batean, neurri honekin espero dena da indartu dadila bereziki araubide berezia.

### 23. ZUZENKETA

#### UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren artikuluari beste atal —Hamar bis— gehitzeko zuzenketa.

Hamar bis. 109. quinquies 2 artikulua.

“2. Hobaria izan dezakeen errentamendutik heldutako errenta honela osatuko da etxebizitza bakoitzaren kasuan: eskuratutako diru-sarrera osoa, ken diru-sarrera hori lortzeko zuzeneko gastuak eta diru-sarrera horri proportzioan gastu orokorretatik dagokion zatia. Eskuratutako diru-sarrera osoaren parte izanen dira errentamenduko etxebizitza babestuentzat aurreikusitako diru-laguntza publikoen kasuan kasuko egozpenak, betiere egozpen horiek kontabilitatearen arau eta printzipioen arabera egiten badira.

Foru lege honen 17. artikuluan aipatzen den errentamendu finantzarioko kontratuen bidez erositako etxebizitzaren kasuan, hobaria hartzen duen errenta kalkulaterakoan ez dira kontuan hartuko artikulua horretan xedatutakoa aplikatuzetik eratorzen diren zuzenketak”

109. quinquies artikulua 2. idatz-zatiak zehaztu egiten du hobaria jaso dezakeen errentamenduaren ondoriozko errenta zein den. Errenta hori kalkulatzeko, argi zehaztu behar da errentamenduan eskuraturiko diru-sarrera osoen kontzeptua, jakiteko zer diru-sarrera heldu diren etxebizitza bakoitzetik.

Babestutako etxebizitzak sustatu eta errentan emateko jarduera bultzatzeko, eta alokairuko etxebizitzaren merkatua indartzeko, ohikoa da Administrazio Publikoak etxebizitza babestuen sustatzaileei diru-laguntza aukera ematea publikoak eskura ditzaten.

Hori horrela, zuzenketak argi utzi nahi du etxebizitza babestuen errentamendurako aurreikusitako diru-laguntza publikoak hobaria jasotako diru-sarrera osoaren parte izanen direla. Horretarako, betiere, kontabilitateko arau eta printzipioen arabera egotziko beharko dira diru-laguntza horiek.

### 24. ZUZENKETA

#### UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren artikuluko Hamaika atala aldatzeko zuzenketa.

Hamaika. 109. artikulua quinquies.3.

“3. Zergapetze bikoitza saihesteko kenkaria aplikatuko zaie, 59. artikuluan baitago arautua, artikulua honetako 1. idatz-zatian ezarritako hobaria aplikatu zaien errenten kargura banatutako dibidenduei edo mozkinetako partaidetzei, eta, halaber, zerga araubide hau aplikatutako entitateen partaidetzen eskualdaketen ondoriozko errenten kargura banatutakoei, baldin eta hobaria izan duten mozkin banatu gabeen ondoriozko erreserbei badagozkie”

Zioak: Zuzenketak bi arrazoi ditu.

Batetik, errenten dibidenduen zergapetze bikoitzagatik kenkaria handitu egin nahi da araubide berezi hori aplikatuta hobaria jaso duten errententzat. Era berean, zergapetze bikoitzagatik kenkaria handitu egin nahi zaie zerga araubide hori aplikatutako entitateen partaidetzen eskualdaketen ondoriozko errenten kargura banatutako errentei, baldin eta hobaria izan duten mozkin banatu gabeen ondoriozko erreserbei badagozkie.

Horrekin nahi dena da etxebizitzaren errentamenduaren araubide berezia indartu, halako moduz non araubide horrek ematen duen hobaria benetan eraginkorra izan dadin, hobari hori ez baita murriztuko hobariak izan dituzten erreserbetatik heldutako dibidenduak banatzerakoan.

Bestalde, zuzenketak sinpletu egiten du araua; izan ere, zerga-finkapeneko araubideak aurreikusia du ezen, oinarri bateratua zehazteko, kendu egin beharko direla

zergapetze-bikoitzagatik 59. artikuluan aurreikusitako kenkaria aplikatu zaien oinarri indibidualetan sartutako dibidenduak.

### 25. ZUZENKETA

#### BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren artikuluko Hamasei atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Sozietateetako onuradunen gaineko zergak proposatzen dena baino birplanteamendu sakonagoa eskatzen du, talde honek aurkeztutako Sozietateen gaineko Zerga Aldatzeko Foru Lege proposamenean ageri den bezala.

**26. ZUZENKETA****ARALAR-NAFARROA BAI**  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Zortzigarren artikuluko Bi atala kentzeko zuzenketa. Fundazioen eta Babes Jardueren Tributu Araubidea erregulatzen duen Foru Legeko 14. artikulua aldatzen du atal horrek.

Zioak: Gure ustez karguen doakotasunari eutsi behar zaio.

**27. ZUZENKETA****UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Bederatzigarren artikuluari beste bi atal –Bat bis eta Bost bis– gehitzeko zuzenketa.

"Bat bis. 99. artikulua. 16. eta 17. tarifak sortzen dira.

16. TARIFA	Izena ematea araubide bereziko kirol ikasketetan sartzeko proba espezifikoetan.	
	1. Tarifa arrunta:	45,00
	2. Familia ugaria, 1. mailakoa (maila orokorra):	22,50
	3. Familia ugaria, 2. mailakoa (maila berezia):	0,00"
17. TARIFA	Izena ematea araubide bereziko kirol ikasketetan sartzeko proba espezifikoetan; modalitate hauetan, hain zuzen: "Neguko kirolak", "Hipika" eta "Bela".	
	1. Tarifa arrunta:	80,00
	2. Familia ugaria, 1. mailakoa (maila orokorra):	40,00
	3. Familia ugaria, 2. mailakoa (maila berezia):	0,00"

“Bosgarren bis. 146. artikulua. 2. eta 4. tarifak.

2. TARIFA	Inguruabar bereziak agiriak ematean:	
	1. 1. tarifan adierazitako agiriak edozein arrazoiengatik Foru Komunitateko Administrazioarentzat ezarritako egun eta orduetatik kanpora luzatzen direnean:	1. tarifan ezarritakoak halako bi
	2. Nafarroan barna azienda alde batetik bestera aldatzeko agiriak ematen direnean:	1 euro agiri bakoitzeko
	3. TRACES esportazio-agiria emateko helburuarekin ustiatagia ikuskatzeagatik Ikuskatzeagatiko tasa	50,00
4. TARIFA	Lege indardunek epizootien diagnosirako agindutako lagin-hartzea eta produktu-aplikatzea, buru bakoitzeko:	
	1. Ekidoak eta bobidoak:	5,00
	Egunean saneatutako 150. animaliatik aurrera:	3,00
	2. Ardi- eta ahuntz-azienda:	0,50
	Egunean saneatutako 500. animaliatik aurrera:	0,30
	3. Zerri-azienda:	2,00
	Egunean saneatutako 150. animaliatik aurrera:	1,50
	4. Ostrukak:	5,00
	Egunean saneatutako 150. animaliatik aurrera:	3,00
	5. Bestelako hegaziak eta untxiak:	0,50
	Egunean saneatutako 500. animaliatik aurrera:	0,30
	6. Animalien entzefalopatia espongi-forme kutsagarrien behatze-programak ezarritakoa betetzeko egin beharreko desplazamendu, lagin-hartze eta analasiengatik. Animalia bakoitzeko tasa	25,00

Zioak: Bat bis atala gehitu da zeren eta lehen-biziko ezarri baitira Nafarroan araubide bereziko kirol ikasketak.

Ikasketa horiek bi baldintza-mota eskatzen dituzte sartzeko: batetik, baldintza akademikoak, eta, bestetik, baldintza espezifikokoak. Azken horiek kirol izaerako baldintzak dira, sarrera-proba baten bidez exijitzen direnak.

Ondorioz, kirol ikasketa mota horietako bakoitzean sartzeko nahitaezkoa da proba horiek egitea.

Bost bis atala arrazoi hauengatik gehitu da:

Lehenbizi, kendu egin da 2. tarifako tasa, zeina exijitzen baitzen abeltzainak Abeltzaintzako Bulego Birtuala erabiliz Internet bidez eskatzen zituen osasun-gidak emateagatik; kendu da ez duelako kosturik Administrazioarentzat, prozesua automatizatua baitago.

Bigarrenik, 2. tarifan tasa berri bat sortu da, ikuskaritzagatik.

Tasa horren arrazoia da Europako Kontseiluak 1990eko ekainaren 26an emaniko zuzentarauak zenbait kontrol ezartzen dituela; zuzentarau hori Europako Erkidegoko barruko zenbait animalia biziren eta produkturen trukeetan aplikatzekoak diren albitari-kontrol eta kontrol zooteknikoei buruzkoa da.

Egiaztapen horien ondotik, animaliek, material genetikoek eta Europako Erkidegoko barruko trukeetarako diren azpiproduktuek osasun ziurtagiriak izan behar dituzte eta aurreikusten diren beste zeinahi agiri ere bai; beraz, albitari ofizialak osasun ziurtagiri bat eman behar du, “Traces” izeneko, animaliarekin edo produktuekin batera joan dena hartzailearenganaino iristen den arte.

Azkenik, aldatu egiten da 4. tarifa; izan ere, ustiatagi bat saneatzeko lanetan, lantalde bat baino gehiago aritu daitezke, eta, horrenbestez, jarri beharrean gehienezko kopuru bat ustiatagi eta eguneko, zuzenagoa da zenbateko bat jartzea animalia, eta animalia-kopuru batetik gorako banakako zenbatekoa jaitea.

**28. ZUZENKETA****MANU AYERDI OLAIZOLA****FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA**

Hamargarren artikulua berri bat gehitzeko zuzenketa. Haren bidez, Iruzur Fiskalaren aurkako Neurriei buruzko apirilaren 17ko 14/2013 Foru Legea aldatzen da. Hona testua:

“Hamargarren artikulua. Iruzur Fiskalaren aurkako Neurriei buruzko Foru Legea.

Xedapen iragankor bakarrari 3. idatz-zati berri bat gehitzen zaio. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren estimazio objektiboko araubidea eta balio erantsiaren gaineko zergaren araubide berezi sinplifikatua, 2014 urteari dagozkion zergaldietarako.

“3. Aurreko idatz-zatiko a) eta b) letretan jasotako muga kuantitatiboetan egindako aldaketak direla-eta aipatutako araubideak aplikatzekoak ez zaizkien jarduera ekonomikoek, betiere, kenketa-rako eskubidea emanen diote beren titular den subjektu pasiboari, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortpen kasuan kasu hartutako aholkularitza profesionaleko gastuen igoerari dagokionean. Halakoetan, honako baldintzak bete beharko dira:

a) Kenkaria soilik aplikatzekoa izanen da zuzeneko estimazioko sistemak determinatutako etekin garbia, kenkari hauxe alde batera utzita, handi-agoa baldin bada subjektu pasiboak ordaindu dituen aholkularitza profesionaleko gastuetan egiazki gertatu den igoeran estimazio objektiboko sistema aplikatuta gertatzen den etekin garbia kentzearen emaitza baino.

b) Aplikatzekoa den kenkariaren zenbatekoa ezin izanen da 2.500 eurokoa baino handiagoa izan subjektu pasibo bakoitzeko.

c) Estimazio objektiboko sistema aplikatu ondoren sortzen den etekin garbia, inolako minoraziorik egin gabe, handi-agoa bada estimazio zuzeneko sistema aplikatuz ateratzen den etekin garbia baino, aplikatzekoa den kenkaria ezin izanen da izan bi zenbatekoen arteko aldea baino handiagoa.”

Zioak: Honen bidez konpentsatu nahi da xedapen honen aplikazioak aholkularitza profesionaleko gastuetan ekar lezakeen igoera.

**29. ZUZENKETA****SOCIALISTAS DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Xedapen gehigarria aldatzeko zuzenketa.

Xedapen gehigarria honela idatzirik geldituko da hemendik aurrera:

“Xedapen gehigarria.

1. Foru lege honetako 63. artikuluan ezarritako kenkarirako eskubidea izanen dute herri lanen kontzesiodunak diren enpresa publikoak, baldin eta horren indarrez herri lanen kontzesioko kontratuak, Nafarroako Foru Komunitatearekin nahiz haren menpeko enteekin eginak, aurrera eramaten badituzte.

2. Aurreko kenkariaren sorrera ez dago elementuen kontabilitate-erregistroa ibilgetu materialeko osagai aktibo gisa egitearen menpe, ez eta foru lege honetako 64. artikuluko c) letran ezarritako mugen menpe ere.

3. Kenkari hau aplikatzeko baldintzetan dauden entitateek honakoak bete beharko dituzte:

a) Behar bezala egiaztatzea, Administrazioak eskatuta, kasuko ekitaldian abian jarri eta kenkaria sortuko duten inbertsioen jatorria.

b) Egiaztatzea, Administrazioak eskatuta eta hurrengo ekitaldietan, inbertsioak ez direla izapidetu eta ez zaizkiola lotzen azpiegituraren eraikuntzarekin eta ustiakearekin lotutako jarduera ekonomikoaren garapenari.”

Zioak: Kontabilitate Plan Orokorra azpiegitura publikoen emakidadun diren enpresei egokitze arauak onesten dituen abenduaren 23ko EHA/3362/2010 Aginduak garrantzizko aldaketak sartu zituen enpresa emakidadunek eginiko inbertsioen kontabilitate erregistroa egiteko arauetan. Aldaketa horien eraginez, aurreko arauetan ezarritakoez bestera, azpiegitura ez da ibilgetu materializat aitortzen; izan ere, jasotako kontraprestazio motaren arabera, emakidadunak aitortu beharko ditu edo aktibo finantzario bat edo ibilgetu ukiezin bat edo biak.

Kontabilitate-irizpidean izandako aldaketa horrek bere garrantzia izan du zergen arloan eta, zehazkiago, ibilgetu materialeko elementu berrietan egindako inbertsioengatik eta higiezinetan egindako inbertsioengatik kenkariari dagokionez. Kenkari hori Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legeko 63. artikuluan jasota dago, zeina lotu behar baita Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legean ezarritakoarekin. Egiazki, aipatutako kontabilitate-aldake-

tak Administrazioaren emakida-kontratuen onuradun diren konpainiei eragozten die aktibo finkoetan inbertitzeagatiko kenkariak sortzea; horren arrazoia da, adierazi bezala, kontabilitate-aldaketa bat egin dela baina horrek ez duela eraginik emakida-kontratuaren testuinguruan, ondasun higiezin nahiz higigarri gisa, egin beharreko azpiegituren benetako izaera juridikoan. Horrek ustekabeko segurtasun juridikoa eragin du, bai eta ukitutako enpresen finantza- eta ondare-oreka nahastea ere.

Horrenbestez, beharrezkotzat jotzen da arau-aldaketa bati ekitea, entitate horiek aukera izan dezaten aktibo finkoetan inbertitzeagatiko kenkaria aplikatzeko, kideen izaera juridiko-zibilaren lehen-tasun-printzipioaren pean; izan ere, horrek ogasun higiezin ala higigarri gisa sailkatzen ditu, edozein dela ere abenduaren 23ko EHA/3362/2010 Aginduaren xedapenen aplikazioaren ondorioz daukaten kontabilitate-izaera. Entitate emakidadunen egoera fiskala egokitu beharra dago aipatutako aginduak indarra hartu baino lehen zegoen egoera fiskalaren arabera.

### 30. ZUZENKETA

#### BILDU-NAFARROA

##### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren xedapen gehigarria kentzeko zuzenketa.

Zioak: Proposatutako salbuespena ez dago justifikaturik eta ez du justifikaziorik.

### 31. ZUZENKETA

#### IZQUIERDA-EZKERRA

##### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Hirugarren xedapen gehigarria kentzeko zuzenketa.

Zioak: Uste dugu Nafarroan sozietateen gaineko zergak lurralde komunean daudenak baino onura fiskal handiagoak dauzkala.

### 32. ZUZENKETA

#### BILDU-NAFARROA

##### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Hirugarren xedapen gehigarria kentzeko zuzenketa.

Zioak: Aurreko zuzenketarekin bat etorritz, sozietateetako onuradunen gaineko zergak proposatzen dena baino birplanteamendu sakonagoa eskatzen du, talde honek aurkeztutako Sozie-

tateen gaineko Zerga Aldatzeko Foru Lege proposamenean ageri den bezala.

### 33. ZUZENKETA

#### BILDU-NAFARROA

##### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Azken xedapenetan lehenengo kentzeko zuzenketa.

Zioak: Sozietateetako onuradunen gaineko zergak proposatzen dena baino birplanteamendu sakonagoa eskatzen du, talde honek aurkeztutako Sozietateen gaineko Zerga Aldatzeko Foru Lege proposamenean ageri den bezala.

### 34. ZUZENKETA

#### UPN, SN, B-N, A-NB, PPN eta I-E

##### PARLAMENTU-TALDEEK

##### eta MANU AIERDI OLAIZOLA

##### FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Xedapen indargabetzaile bat, lehena, gehitzeko zuzenketa.

“Lehenengo xedapen indargabetzailea. Hidrokarbuoren gaineko zergaren karga-tasa autonomikoa kentzea.

2014ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez indargabetzen dira Diru-sarrera publikoak areagotzeko zenbait tributu-neurri sartzekoa dituen ekainaren 15eko 10/2012 Foru Legearen lehen artikulua eta Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk ezartzeko abenduaren 26ko 21/2012 Foru Legearen laugarren xedapen gehigarria.”

Zioak: Ikusmira paratuz 2012. urteko diru-sarreen aurrekontu-exekuzioan hautemandako desbideratze nabarmenen zuzenketan, Diru-sarrera publikoak areagotzeko zenbait tributu-neurri sartzekoa dituen ekainaren 15eko 10/2012 Foru Legearen lehenbiziko artikulua bidez xedatu zen Foru Komunitatean karga-tasa autonomikoak aplikatzea Zenbait Hidrokarbuoren Txikizkako Salmentaren gaineko Zergaren bitartez.

Geroago, 2012rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko ekainaren 15eko 2/2012 Legeak 2013ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez kendu zuen zenbait hidrokarbuoren txikizkako salmentaren gaineko zerga, eta hidrokarbuoren gaineko zergaren barruan sartu zuen. Horren ondorioz, eta 2013ko urtarrilaren 1etik aurrerako efektu berberekin, zenbait zerga aldatzeari eta beste tributu-neurri batzuei buruzko abenduaren 26ko 21/2012 Foru Legeak xedatu zuen ezen zenbait hidrokarbuoren

txikizkako salmentaren gaineko zergaren karga-tasa autonomikoak, aipaturiko ekainaren 15eko 10/2012 Foru Legearen bitartez ezarriak, hidrokarburoen gaineko zergako karga-tasa autonomiko bezala aplikatuko zirela.

Foru Komunitatean aipaturiko karga-tasa autonomikoak aplikatzen hasi zirenetik urtebete baino gehiago igaro denean, ikusi ahal izan da nabarmen jaitsi dela tasa horien aplikazioa pairatu duten produktuen kontsumoa, bai eta tasa horiek aplikatzen eratorritako zerga-dirubilletarekin ez direla ordaintzen kudeaketa- eta egiaztatze-lanetarako erabili behar diren baliabide material nahiz giza baliabideak.

Aurrekoa kontuan harturik, gomendagarritzat jotzen da indarrik gabe uztea hidrokarburoen gaineko zergako karga-tasa autonomikoen aplikazioa. Hori dela-eta, karga-tasa horiek ezarri zituzten arauak indargabetzen dira.

Karga-tasen aplikazioa bertan behera utziko da 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera.

### **35. ZUZENKETA**

#### **UPN, SN, B-N, A-NB, PPN eta I-E PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA**

Xedapen indargabetzaile bat, bigarrena, gehitzeko zuzenketa.

“Bigarren xedapen indargabetzailea. Iruzur Fiskalaren aurkako Neurriei buruzko apirilaren 17ko 14/2013 Foru Legearen xedapen iragankor bakarren indargabetzea.

2014ko urtarrilaren 1etik aurrera, indargabetuta gelditzen da Iruzur Fiskalaren aurkako Neurriei buruzko apirilaren 17ko 14/2013 Foru Legearen xedapen iragankor bakarra.”

Zioak: Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatu zuen azter zitzala pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zenbatespen objektiboaren araubidea erabiltzen zuten jarduerak. Hala, Nafarroako Zerga Ogasunak azterlan hori aurkeztu dio Nafarroako Parlamentuari, eta, bertan, nabarmendu du zein diren jarduera adierazgarrienak errendimenduaren zenbatekoagatik, edo deklaratazailerik kopuruagatik, eta zuzeneko zenbatespenaren araubidean ordaindu beharrekoarekin konparatu du.

Aurrekoa kontuan hartuta, komenigarritzat jotzen da indarrik gabe uztea Iruzur Fiskalaren aurkako Neurriei buruzko apirilaren 17ko 14/2013 Foru Legearen xedapen iragankor bakarra.

